

LANGILE-ESPEZIALISTA LANPOSTU BI BETETZEKO

OINARRI-ARAUAK. SISTEMA: OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREA

1.- Deialdiaren helburua.-

Honako deialdi honen helburua da langile-espezialista plaza bi betetzea oposizio-lehiaketa librearen bidez. Plaza horiek Erandioko Udal Funtzionarioen plantilakoak dira eta eginkizun bereziko eskalan, ofizioetako langilerian eta E sailkapen taldean kokatzen dira. 6018 kodea duten plaza hauek Erandioko Udalaren 2004ko lan-eskaintza publikokoak dira.

2.- Lanpostuaren ezaugarriak.

2.1.- Langile funtzionarioek betetzekoak dira plaza horiek eta Erandioko Udaleko plantila bateratuan sartzen dira.

2.2.- Plaza horiek bat datoz I. Eranskinean adierazitako lanpostuaren zehaztasunekin.

3.- Izangaiek betebeharreko baldintzak

Ondorengo baldintzak bete behar dira onartua izan eta oposizio-lehiaketa irekian parte hartzeko:

A) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetak naziotasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere legez bananduta ez badaude; naziotasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —betiere legez bananduta ez badaude—, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira, parte hartu ahal izango dute.

B) 18 urte eginda edukitzea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea. Hala ere zenbait prozesutan halako adin jakina eska daiteke.

C) Eskola-ziurtagiria izatea.

D) Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea. Erandio Elizateko Udalak izendatutako medikuek egiaztatuko dute egokitasun hori.

E) Diziplina-espediente bidez inongo herri-administrazioetik bereizita ez egotea eta eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe ez egotea.

- F) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera.
- G) Izendapena egiten den egunetik aurrera ezgaitasun arazorik ez izatea eta legez bateraezin diren jardueretan ez aritzea (abenduaren 26ko 53/84 Legea eta apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretua).
- H) "B" motako gidabaimena edukitzea.

4.- Eskabideak.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orriak Erandioko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio eta eskabide-orri horiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- A) Hirugarren oinarrian eskatzen zaizkien baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi behar dute hautagaiek; baldintza horiek eskabide-orriak aurkezteko epearen azken egunerako bete behar dituzte eta deialdian parte hartzeko eskatzen diren tituluen fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dituzte.
- B) Era berean, lehiaketa-aldian balioetsiko diren merezimenduak egiaztatzeko datu eta agirien fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dituzte.
- C) Eskabide-orriak Erandioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo astegunetik aurrera zenbatutako hogeita hamar (20) eguneko epean. Era berean, eskabideak aurkeztu ahal izango dira, baita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak, 38.4 artikuluan, eta urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak adierazitako moduan. Azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4-c artikuluan adierazitakoari jarraituz, eskabidea Posta bulegoetan aurkeztuko bada, zabalik doan gutun-azalean aurkeztuko da, alkate-udalburuari zuzenduta, eta postetxeko funtzionarioak zigilua eta data jarriko dizkio eskabideak aurkezteko epearen barruan gutuna ziurtatu aurretik. Era horretan aurkezten diren eskabideak hartuko dira ontzat eta postetxean aurkeztu diren egunean emango zaie erregistroa Udal Erregistroan. Antzemandako hutsak edozein unetan zuzen ditzake administrazioak bere kabuz edota interesatuaren eskariz. Eskabideak akatsen bat izanez gero, bidezko diren agiriak aurkezteko hamar eguneko epea duela eta aurkezten ez baditu eskabidea ezetsi eta beste barik artxibatuko dela jakinaraziko zaio interesatuari, 30/92 Legeko 71.1 artikuluan xedatutakoaren arabera

5.- Izangaiak onartzea.

Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-udalburuak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartu eta epaimahaikide titular eta ordezkioak izendatzeko. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da, eta hautagaiek hamar eguneko epea izango dute (iragarkia Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta) egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da beste barik. Erreklamaziorik bada, ordea, onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendari behin betikotasuna emango dion erabaki berri baten bidez onartu edo ezetsiko dira. Goian adierazitako modu berean emango da argitara behin betiko zerrenda.

Behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da, baita, oposaketako lehenengo azterketa zein egun, ordu eta tokitan izango den ere. Erandioko udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko du epaimahaiak gainontzeko azterketen berri.

6.- Epaimahai kalifikatzailea.

Lehiaketa-oposizioaren epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

- Lehendakaria:
 - Erandioko alkate jauna edo berak ordezkari izendatzen duen Udalbatzako kidea.
- Epaimahaikoak:
 - Erandioko Udaleko Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Ingurumena eta Etxebizitza Saileko alkateorde arlo arduraduna.
 - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legeko 31.2 artikuluan xedatua).
 - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat bereziki euskararen ezagutza baloratzeko (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legeko 99. artikuluan xedatua)
 - Erandioko Udaleko funtzionarioa, alkateak izendatua.
 - Erandioko Udaleko Langile Batzordearen ordezkari bat
- Idazkaria:
 - Korporaziokoa edo hark eskuordetzen duena.

Alkate-udalburuak izendatuko ditu epaimahaiko kideak, ordezkatzeko erakundearen proposamenari jarraituz. Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote udalburuari, baldin eta 30/92 Legeak 28. eta 29. artikuluetan jasotako kasuren bat gertatzen bada: gaian interes pertsonala izatea, laugarren gradura arteko odolkidetasuna, bigarren gradura arteko ezkontza-ahaidetasuna, adiskidetasun estua edo etsaitasun agerikoa, zerbitzu harremana izatea edo azken bi urtetan edozein motako zerbitzu profesionalak, edonon eta edozein egoeratan eskaini izana gaian zerikusi zuzena duten pertsonentzat. Kasu horietan hautagaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte.

Organo kolegiatuei buruz azaroaren 26ko 30/92 Legeak agindutakora egokituko da epaimahaiaren jarduna.

Epaimahaiak, egoki baderitza, gaian adituak diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun kideen erdiak - titularrak zein ordezkioak- baino gehiago ez badaude. Ezinbestekoa da lehendakaria eta idazkaria bertan izatea.

7.- Oposizio faseko azterketak.

Oposizio-aldiarekin emango zaio hasiera hautaketari, eta eskabide-orriak aurkezteko epea zabaltzen denetik oposizio-aldia hasten denerako, gutxienez hilabete bat igaroko da, baina ez da sei hilabete baino gehiago igaroko.

Azterketa bat bukatzen denetik hurrengo hasi bitartean gutxienez 24 orduko eta gehienez 30 egun naturaleko tartea egongo da. Hala ere, egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki dezake epaimahaiak, azterketari kopuruagatik edo ariketa mota eta iraupenagatik egokitzat jotzen badu.

Ariketa bakoitzean deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik.

Oposizio faseak honako ariketa hauek izango ditu:

Lehenengo azterketa: derrigorrezkoa eta baztertze indarrekoa. Epaimahaiak jarritako eragiketak egin behar dituzte hautagaiek aritmetikako lau erregelekin. 10 puntura arte baloratuko da eta hautagaiek 5 puntu lortu behar dute, gutxienez, azterketa gainditzeko.

Bigarren azterketa: derrigorrezkoa eta baztertze indarrekoa. Bi atal izango ditu, eta biak gainditu behar dira.

- a) Eranskineko gai-zerrendari buruz epaimahaiak prestatutako galdeketari erantzutea. Azterketa idatzizkoa izango da eta 5 puntura arte baloratuko da. Azterketa honetan 2,5 puntu lortzen ez duten hautagaiek baztertuta geratuko dira.
- b) Arotzeria, iturgintza, igeltserotza eta elektrizitate lanetan, zein bide bazterretako sasi eta sastrakak garbitzeko lanetan hautagaiek duten gaitasuna erakusteko proba praktikoak, beharrezko diren makinak edo tresneria erabilia. Orik 15 puntura arte baloratuko da eta hautagaiek 7,5 puntu lortu behar dute, gutxienez, proba gainditzeko. Probak egitean erakusten duten trebetasuna, garbitasuna eta abiada baloratuko dira, bai eta probak egiteko erabiliko den tresneria edo makineria muntatzeko trebetasuna ere.

Hirugarren azterketa: euskarazko lehen hizkuntza eskakizunari dagokion ezagutza egiaztatzeko. Ez da derrigorrezkoa. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99. artikuluan ezarritakoaren arabera HAEEK emandako irizpideei jarraituz burutuko da epaimahaiak jarritako azterketa.

Euskarazko aukerako azterketa hau Orik 2,5 puntura baloratuko da. Azterketarik egin gabe ere, 2,5 puntu izango dute lehen hizkuntza eskakizuna, edo goragoko bat, edo apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak ezarritako bestelako tituluren bat dutela agiri bidez egiaztatzen duten hautagaiek.

8.- Lehiaketa fasea.

Azterketa fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen lehiaketara igaroko dira. Eskabide-orriarekin batera eta deialdiko 4. oinarriko b) atalean ezarritakoaren arabera behar bezala aurkeztutako agiriak baloratuko ditu epaimahaiak.

Tituluak eta ikastaroak:

- 1.- Honako eginkizunekin zerikusia duen ofizio edo espezialitateko titulua: igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza, arotzeria eta mekanika: 1,25 puntu titulu bakoitzeko eta 2,5 puntu gehienez.
- 2.- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko eta 2,5 puntu gehienez.
- 3.- Antzeko lanetan edo peoi mailako bestelako lanetan aritutako denbora: 2,75 puntu urteko edo sei hilabetetik gorako zatiko eta 8,25 puntu gehienez.

9.- Epaimahaiaren proposamena

Oposizio-aldian eta lehiaketa-aldian lortutako puntuazio guztiak batuta aterako da hautagai bakoitzak izango duen azken puntuazioa eta horren arabera izango da behin betiko zerrendaren hurrenkera.

Epaimahaiak udaletxeko iragarki oholean emango du argitara proposatutako hautagaiaren izena, azterketetako eta merezimendu bidezko lehiaketako azken puntuazioak eman ondoren.

Epaimahaiak alkate-udalburuari bidaliko dio bidezko den izendapen proposamena.

Epaimahaiaren ebazpena jakinarazten zaionetik 20 egun izango ditu proposatua izan den hautagaiak, ondoren azalduko diren agiriak Erandioko udaletxean aurkezteko. Agiriak:

- A) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- B) Dagokion Erregistro Zibilak luzatutako jaiotza agiria.
- C) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten dion gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez izatea ziurtatzen duen mediku-ziurtagiria, mediku kolegiatuak luzatutakoa.
- D) Deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
- E) Zinpeko adierazpena, honako edukiak dituena: ez dagoela ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta.

Aurkeztutako agiri guztiak aztertu ondoren, Korporazioko alkate-udalburuak praktiketako funtzionario izendatuko du epaimahaiak proposatutako hautagaia. Aukeratua izan den hautagaiak berehala hasi beharko du bere lanpostuan.

Emandako epearen barruan, eta halaberrezko kasuetan izan ezik, aipatutako agiri horiek aurkeztu ez edo eskatutako betekizunak egiaztatu ez dituenak, ez du funtzionario izendapenik jasoko, eraginik gabe geratuko dira bere jarduerak eta hasierako eskaera-orrian azalduko

faltsutasunaren ondorioz izan dezakeen erantzukizunari egin beharko dio aurre. Kasu horretan, behin betiko sailkapen-hurrenkerako lehenespenari jarraituz, azterketak gainditu eta ondorengo postua betetzen duenaren izendapen proposamen berria luzatuko du aginpidedun organoak.

Beste edozein jarduera publiko edo pribatu egiteko, kasuan kasuko bateragarritasun aitortpena aurkeztu beharko dio langileak Udalbatza Osoari.

10.- Deialdia hutsik geratzea.

Egindako probetan hautagaiek maila egokirik ez dutela lortu iritziz gero, deialdiko lanpostua bete barik uztea erabaki dezake epaimahaiak.

11.- Izendapena, praktikaldia eta prestakuntza.

Prestakuntza eta praktikaldiak **sei hilabeteko** iraupena izango du. Epea amaitzean Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ingurumen, Etxebizitza, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arlo Arduradunak txostena emango du, non langileak erakutsitako gaitasun profesionalari buruzko irizpena emango duen, praktikaldiko epea modu egokian gainditu duen ala ez adieraziz.

- Ondorengo irizpide hauek izango dira kontutan:
- Lana arrazionaltasunez eta eraginkortasunez planeatu eta antolatze gaitasuna.
- Gainontzeko langileekin eta jendaurrean harremanak izateko gaitasun egokia
- Interesa, iniziatiba eta sortzeko nahiz ekarpenak egiteko gaitasuna.
- Lana ezagutzeko eta egiten ikasteko gaitasuna.
- Lanpostuaren zereginak zurruntasunez betetzeko eta bere gain hartzeko erantzukizun maila.

Izangaiak prestakuntza eta praktikaldia gainditzen baditu, karrerako funtzionario izendatuko dute. Prestakuntza eta praktikaldia gainditzen ez baditu, izendapena jasotzeko eskubide guztiak galduko ditu, alkate-udalburuak emango duen arrazoitutako ebazpenaren bidez.

12.- Gorabeherak.

Epaimahaiak eskumena izango du agertzen diren zalantzak bideratzeko eta hautaketa prozesua modu egokian garatzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri-arauotan aurreikusi gabeko gaiei dagokienez.

13.- Ordezko arauak.

Ondorengo legeetan agindutakoa aplikatuko da oinarri-arauotan aurreikusi gabeko orotarako: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; Toki Araubideari buruz indarrean diren lege xedapenen testu bateratua onartzeko apirilaren 18ko 781/86

Legegintzako Errege Dekretua; Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/84 Legea; Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzuko langileak hartzeko Araudi Orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/84 Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/95 Legea; abenduaren 7ko 11/97 Legea, ekainaren 7ko 896/97 Errege Dekretua eta gaiari buruz indarrean dauden legezko gainontzeko xedapen eta araudiak.

14.- Aurkapenak.

Deialdiaren, deialdiko oinarri-arauen eta horietatik zein epaimahairen jardueratik eratorritako administrazioko egintzen aurka jo ahal izango dute interesatuek, ondorengo legeetan aurreikusitako kasuetan eta moduan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legea, urtarrilaren 13ko 4/99 Legea eta martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretua.

I. ERANSKINA

LANPOSTUAREN IZENA	Langile espezialista.
LANPOSTUEN ZERRENDAN LANPOSTUAK DUEN KODEA:	6.018.
UNITATEA:	Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Ingurumena eta Etxebizitza.
NAGUSIA	Obra eta zerbitzuetako kapataza
OINARRIZKO EGINKIZUNA:	Ondasun publikoak mantentzeko lanak eta udal obrak egitea.

EGINKIZUN NAGUSIAK:

- Ofizialei lagundu eta arotzeria, igeltserotza, elektrizitate eta bestelako lanak egin ondasun publikoak iraunarazteko.
- Garbiketa lanak.
- Larrialdiko egoerak bideratzeko lanetan parte hartu.
- Lur-emaleei lagundu eta, noizean behin, haien ordezkotza egin.
- Merkatuan bidezko diren araudiak betearazi, salgaien jagoletza egin, ordainagiriak prestatu, kobratu eta dirua banku edo kutzara eraman (hilerok)
- Analizatu beharreko uren laginak jaso eta desinsektazio lanak egin eta arratoiak hil herriko lokaletan eta kaleetan.
- Agintzen dizkioten eta lanpostua betetzeko eskatu zaion prestakuntzarekin bat datozen beste zeregin batzuk.

TALDEA	E
ESKALA	Berezia
ESKATUTAKO TITULAZIOA:	Eskola Ziurtagiria.
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	Lehenengoa, derrigortasun datarik gabe.
LANTOKI-OSAGARRIAREN MAILA:	11
Berariazko osagarria:	1.245 puntu
DEDIKAZIOA:	Bateraezintasuna

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

- 1. gaia.-** Udal antolamendua. Udal-organoen eskuduntzak eta jarduera.
- 2. gaia.-** Udalaren eskumenak.
- 3. gaia.-** Udal ordenantzak eta araudiak.
- 4. gaia.-** Udal ondasunak.
- 5. gaia.-** Obra-lizentziak.
- 6. gaia.-** Erandioko udalerria. historia, geografia, kultura eta jaiei buruzko azalpen orokorrak. Kaletegia.
- 7. gaia.-** Iturgintza lanetan erabiltzen diren erreminta eta materialen ezagupena. Iturgintzako makineria eta erreminten mantentze, irunarazte eta garbitze lanak.
- 8. gaia.-** Iturgintza lanetan erabiltzen diren erreminta eta materialen ezagupena. Iturgintza lanetan erabiltzen diren makineria eta erreminten mantentze, irunarazte eta garbiketa.
- 9. gaia.-** Elektrizitate lanetan erabiltzen diren erreminta eta materialen ezagupena. Elektrizitate lanetan erabiltzen diren makineria eta erreminten mantentze, irunarazte eta garbiketa.
- 10. gaia.-** Laneko segurtasun eta higieneari buruzko oinarrizko arauak. Kontzeptua. Edukia. Baliagarritasuna.

*** * * * ***